



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ETA
GOIAN KULTUR ETA KIROL
ELKARTEAREN ARTEKO
HITZARMENA, DIRULAGUNTZA
IZENDUNA EMATEKO**

BILDURIK

Alde batetik, xxxxxxxx, VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria den aldetik,

Eta bestetik, (NANa: xxxxxxxx), Goian Kultur eta Kirol elkartearen izenean eta hura ordeztuz (IFZ G01505429).

Dokumentu hau sinatzeko ordezkagarritasun eta eskumen nahikoa aitortzen diote elkarri bi aldeek, eta

ADIERAZTEN DUTE:

Vitoria-Gasteizko Udalak, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak dituen eskumen-esparruaren baitan, sustatu eta garatu egiten ditu udalerrian aniztasunean oinarritutako bizikidetza sustatzeko ekintzak.

Goian elkartea hezkuntza komunitarioko ekimen bat sustatzen ari da Hirigune Historikoan, auzoko sareak, baliabideak, taldeak, pertsonak eta ekimenak konektatu eta artikulatzeko xedez, bertako bizilagunen aisialdi beharrak bete, haien artean erlazionatzeko eta elkar ezagutzeko prozesuak sortu eta alor horretan erreferentziazko egitura bat osatzeko asmoz.

Hartara, alderdi bien arteko lankidetza egokia da, helburu osagarriak lortu nahi

**CONVENIO DE SUBVENCIÓN
NOMINATIVA ENTRE EL
AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ
Y LA ASOCIACIÓN CULTURAL Y
DEPORTIVA GOIAN**

SE REÚNEN

De una parte, xxxxx, en calidad de Concejala-Delegada del Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e Igualdad del AYUNTAMIENTO de VITORIA-GASTEIZ,

Y de la otra, xxxxxxxx, con DNI nº xxxxxx, en nombre y representación de la Asociación Cultural y Deportiva Goian (NIF G01505429).

Ambas partes se reconocen con capacidad suficiente para suscribir el presente convenio, y

DECLARAN:

En el marco de las competencias del Servicio para la Convivencia y la Diversidad, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz impulsa y desarrolla acciones para promover la convivencia en diversidad en el municipio.

La Asociación Goian impulsa una iniciativa educativa comunitaria en el Casco Viejo, con la finalidad de conectar y articular redes, recursos, colectivos, personas e iniciativas del barrio para responder a las necesidades de su población en el tiempo de ocio, generar procesos de interacción y conocimiento entre su vecindario y formar una estructura referente en este campo.

Por lo tanto, es adecuada la colaboración entre ambas partes, ya que persiguen objetivos complementarios.



dituztelako.

Hitzarmen hau Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko apiriliaren 19an egindako ohiko bilkuran onetsi da.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

1.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Vitoria-Gasteizko udalak Goian Kultur eta Kirol Elkarteari 114.000,00 euroko diru-laguntza izendun bat ematea, "Alde Zaharreko Komunitate Egitasmoa Hezitzailea 2024 / Iniciativa Educativa Comunitaria del Casco Viejo 2024" proiektua garatzeko eta gauzatzeko gastuak finantzatzen laguntzeko. Proiektua hitzarmen honen l. eranskinean dago.

2.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Dirulaguntza izenduna emateko hitzarmen hau Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzetarako Plan Estrategikoan (2022-2024) jasota dago, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

Hitzarmenaren bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

1.- Haur eta nerabeei (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) lehentasuna ematea, batez ere udalerrira berriki iritsi direnei eta gizarte-egoera ahulean egon daitezkeenei.

2.- Herritarren parte-hartzearen bidez herritartasun-sentimendua garatzen laguntzen duten sareak eta egiturak

Este convenio se ha aprobado en sesión ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local el 19 de abril de 2024.

En vista de lo expuesto anteriormente, ambas partes deciden suscribir el presente convenio, que se regula de acuerdo a las siguientes cláusulas:

CLÁUSULAS

1ª - Objeto

El objeto de este convenio es conceder a la Asociación Cultural y Deportiva Goian una subvención nominativa por parte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz por importe de 114.000,00 euros, con el fin de colaborar en la financiación de los gastos derivados de la ejecución del proyecto "Alde Zaharreko Komunitate Egitasmo Hezitzailea / Iniciativa Educativa Comunitaria del Casco Viejo 2024". Se adjunta el proyecto al presente convenio como Anexo I.

2ª - Plan Estratégico de Subvenciones

El presente convenio de subvención nominativa se recoge en el vigente Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2022-2024), aprobado por la Junta de Gobierno Local el 21 de enero de 2022.

Los objetivos que se pretende conseguir a través del mismo son:

1.- Prestar atención prioritaria a niños y niñas y adolescentes (Educación Infantil, Educación Primaria y Secundaria), sobre todo a quienes han llegado recientemente al municipio y pueden estar en situación de vulnerabilidad social.

2.- Fortalecer y crear las redes y estructuras que contribuyen a desarrollar



indartzea eta sortzea. Bizilagun-sentimendua eta komunitatean parte hartzeko sentimendua garatzen laguntzen duten gaitasunak sustatu eta bultzatzea.

3.- Aisialdiaren arloan, proiektu komunitarioetan parte hartuz, herritartasun-gaitasunak modu integralean garatzea, hezkidetzak, aniztasuna, euskara, parte-hartzea, elkarrekiko zainketa, errespetua eta herritarren komunitatea kontuan hartuta.

3.- Proiektuaren onuradunak

- Alde Zaharrean bizi den edo auzoarekin harremana duen edozein pertsona, baldin eta aisia bertan eman nahi badu, bere adina, sexua, maila ekonomikoa, prestakuntza edo gaitasuna edozein dela ere.
- Esparru honen planteamenduekin bat datorren edozein elkarte edo talde.
- Komunitatea bera, bizikidetzaren aldeko sozializazio-mekanismo gehiagoz hornitu nahi den entitate den aldetik.

4.- Alderdien konpromisoak

Udalaren aldetik:

- Goian Kultur eta Kirol Elkarteari 114.000,00 euroko laguntza ematea, hitzarmen honetan adierazitako baldintzapean, "2023ko Alde Zaharreko Komunitate Egitasmo Hezitzailea" proiektuaren antolakuntzarekin eta kudeaketarekin zuzenean erlazionatutako gastuetan laguntzeko, 2023rako onetsitako udal aurrekontuen 01.81 2361.4.8983 partidaren kontura.
- Proiektu hau garatzeko, udal espazioak

sentimiento de ciudadanía mediante la participación. Fomentar e impulsar aquellas capacidades que contribuyen a desarrollar un sentimiento de vecindad y de participación en la comunidad.

3.- En el ámbito del tiempo libre, mediante la participación en distintos proyectos comunitarios, desarrollar las capacidades de ciudadanía de una manera integral, teniendo en cuenta los criterios de coeducación, diversidad, euskara, participación, cuidado mutuo y respeto y comunidad vecinal.

3ª - Beneficiarias del proyecto

- Cualquier persona que viva o tenga relación con el Casco Viejo y quiera desarrollar su tiempo de ocio en el mismo, más allá de su edad, sexo, nivel económico, formativo o de capacidad.
- Cualquier asociación o colectivo que comparta los planteamientos de este marco.
- La propia comunidad, como entidad a la que dotar de más mecanismos socializadores y que favorezcan la convivencia.

4ª - Compromisos de las partes

Por parte del Ayuntamiento:

- Conceder a la Asociación Cultural Deportiva Goian una subvención de 114.000,00 € en las condiciones indicadas en este documento, para sufragar gastos directamente relacionados con la organización y desarrollo del proyecto "Iniciativa Educativa Comunitaria del Casco Viejo 2024", con cargo a la partida 01.81 2361.4.8983 del Presupuesto Municipal aprobado para 2024.



erabili ahal izango dira, betiere eskuragarri badaude, eskaera ezarritako prozeduraren bidez eginez. Hitzartutako erakundeak urtarila-ekaina aldirako izango dituen erabileren aurreikuspena proiektuan jaso da (I. eranskina), eta iraila-abendua aldirako aurreikuspena uztaila amaitu baino lehen aurkeztuko du erakundeak.

- Ogasun Sailak doakotzat hartuko du espazio publikoaren okupatzea, biltzar-ekipamenduen erabilera eta hiri osoko kirol eta kultur udal-instalazioen erabilera, espazio horietan dauden baliabide teknologiko eta materialen erabilera barne, baldin eta lehen deskribatutako jarduerarekin lotuta badaude. Hori guztia, ondoko araudiak ezarritakoarekin bat etorritik, hitzartutako jardura Gasteizko hirian interes handikoa den heinean: 7.1. Erabilera Publikoko Lurretan Jarritako Saltoki, Barraka, Salmenta-Etxetxo, Ikuskizun edo Jolas-Instalazioengatik Ordaindu Beharreko Tasarako Ordenantza Fiskalaren 5. artikuluko 2. paragrafoa; 7.11 Kultur eta Biltzar Ekipamenduak, Ekipamendu Polifuntzionalak eta Gizarte Etxeak Erabiltzeagatik Ordaindu Beharreko Tasarako Ordenantzaren 4 bis artikuluko 1. atala eta 8.4 Udalaren Kirol Instalazioak Erabiltzeagatik Prezio Publikoaren Ordenantzaren 9. artikulua.

Goian Kultur eta Kirol Elkartearen aldetik:

- Bigarren klausulan deskribatzen diren helburuak lortzeko jardura eta egintza guztiak burutzea.
- Istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea proiektuaosatzen duten jardueretarako, parte hartzaileek zein hirugarren pertsonak

- Para el desarrollo de este proyecto se podrá hacer uso de los espacios municipales realizando la solicitud por el procedimiento establecido y siempre que exista disponibilidad. La previsión de usos por parte de la entidad para el periodo enero-junio se adjunta en el Proyecto (Anexo I.) La previsión de cara a septiembre-diciembre se aportará antes de finalizar julio.
- El Departamento de Hacienda concederá la gratuidad en la ocupación del espacio público, el uso de los equipamientos congresuales y el uso de las instalaciones municipales deportivas y culturales del conjunto de la ciudad, incluido el uso de los recursos tecnológicos y materiales disponibles en estos espacios, siempre que estén relacionados con la actividad antes descrita. Todo ello de acuerdo a lo establecido en el artículo 5º, apartado 2, de la Ordenanza Fiscal 7.1. Tasa por Puestos, Barracas, Casetas de Venta, Espectáculos o Atracciones, Situados en Terrenos de Uso Público, artículo 4 bis apartado 1 de la Ordenanza Fiscal 7.11. Tasa por Equipamientos Culturales, Congresuales o Polifuncionales y Centros y artículo 9 de la Ordenanza Fiscal 8.4. Precio Público por Utilización de Instalaciones Deportivas Municipales, al ser la actividad convenida de gran interés en la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

Por parte de Goian:

- Realizar las actividades y acciones encaminadas a alcanzar los objetivos descritos en la cláusula segunda.
- Contratar un seguro de responsabilidad civil y accidentes en las actividades que componen el proyecto subvencionado,



izan ditzaketen kalte eta istripuen gaineko edozein erantzukizuni aurre egiteko.

- Diruz lagundutako proiektua osatzen duten jarduera bakoitzetik zuzenean edo zeharka lortzen dituzten diru-sarrerak horiek sortzen dituzten gastuak ordaintzeko erabiltzea.

5.- Hitzarmenaren zenbatekoa eta ordainketa

Vitoria-Gasteizko Udalak EHUN ETA HAMALAU MILA euroko (114.000,00 €) zuzkidura ekonomikoa jarriko du. Zenbateko hori bi ordainketetan egingo da:

- Dirulaguntzaren % 80a hitzarmena sinatu ondoren.
- % 20a dirulaguntza behar bezala justifikatu ondoren.

Ezin izanen da dirulaguntza ordaindu onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak ez dituen bitartean, edo dirua itzultzea bidezkoa dela dioen ebazpenagatik zorduna den bitartean.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

Nolanahi ere, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak egiaztatuko du azkenean exekutatu eta justifikatutako zenbatekoa bat datorrela entitate onuradunak eskabidean aurkeztutako aurrekontuarekin. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe bidegabe

que cubra cualquier tipo de daño que pudiera producirse tanto a personas participantes, como a terceras personas.

- Aportación de todos los ingresos obtenidos directa o indirectamente por cada una de las distintas actividades que componen el proyecto subvencionado, para sufragar los gastos de la misma.

5ª - Cuantía del convenio y abono de la misma

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz aportará una dotación económica de CIENTO CATORCE MIL euros (114.000,00 €), cuyo abono se efectuará en dos pagos:

- 80 % de la subvención tras la firma del presente convenio.
- 20 % una vez justificada correctamente la subvención.

No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto el beneficiario no se halle al corriente de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro.

Asimismo, no se abonará la subvención si el beneficiario tuviese pendiente de justificar alguna otra subvención concedida por este Ayuntamiento o si no hubiese reintegrado alguna subvención cuando así se haya requerido.

En cualquier caso, el Servicio de Convivencia y Diversidad, en la fase de comprobación de la justificación, verificará que el importe del presupuesto presentado por la entidad beneficiaria coincide con la cantidad finalmente ejecutada y justificada. Si la cantidad finalmente ejecutada es menor, se reducirá el importe de la subvención inicialmente concedida. Todo ello sin perjuicio de tener que reintegrar



justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

6.- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Emandako dirulaguntza bateragarri izango da ekimen bera gauzatzeko eskuratzen diren beste batzuekin.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gaintitu, inolaz ere, proiektuaren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin batera (Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. artikulua).

7.- Hitzarmenaren iraupena

2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egongo da indarrean hitzarmen hau.

8.- Hitzarmenaren jarraipena

Jarraipen batzorde bat eratuko da hitzarmen honen garapena berrikusteko. Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuko bi teknikariek eta entitate sinatzaileko beste bi ordezkariak osatuko dute.

Batzordeak Zinegotzigo arduraduna eta egoki iritzitako ordezkariak politikoa gonbidatuko ditu hitzarmenaren hasierako eta bukaerako bileretara, onetsitako proiektua aurkeztearekin eta haren memoria ematearekin batera. Behar izanez gero, bilera bereziak ere egin ahalko ditu.

Batzordeak behar adina neurri proposatu ahalko ditu programa ongi garatzeko eta

(total o parcialmente) las cantidades indebidamente justificadas, más los correspondientes intereses de demora, en los supuestos establecidos en el artículo 37.1 b) y c) de la Ley General de Subvenciones.

6ª - Compatibilidad con otras subvenciones

La subvención concedida es compatible con otras que puedan percibirse para la realización de la misma iniciativa.

En cualquier caso el importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos supere el coste del proyecto subvencionado (artículo 16 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones).

7ª - Vigencia del convenio

El presente convenio estará vigente entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2024.

8ª - Seguimiento del convenio

Se constituirá una Comisión de seguimiento para revisar el desarrollo del presente convenio. Estará compuesta por dos personas del equipo técnico del Servicio para la Convivencia y la Diversidad y otras dos representantes de la entidad firmante.

La Comisión invitará a la Concejalía responsable y la representación política que estime oportuna a las reuniones de inicio y final del convenio, coincidiendo con la presentación del proyecto aprobado y la entrega de la memoria del mismo. Podrá asimismo convocar reuniones de carácter extraordinario en caso de necesidad.

La Comisión podrá proponer cuantas



haren kudeaketa hobetzeko.

9.- Justifikatzeko epea eta modua

Entitate onuradunak 2024ko urtarrilaren 31a baino lehen justifikatu beharko du jasotako dirulaguntza.

38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako proiektuaren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandako kopurua bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein gasturen kostua egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

Dokumentazioa aurkezterakoan, jarraian azalduko diren irizpideak hartuko dira kontuan.

Justifikazioa nahitaezko egintza da entitate onuradunarentzat, eta justifikazioko kontu arruntaren bidez egingo da. Kontu horrek ondoko dokumentazioa jasoko du, gutxienez:

a. Proiektuaren azalpen-memoria: egindako jarduerak eta lortutako emaitzak. Honako agiri hauek erantsiko dira:

- Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako dokumentazio grafiko nahiz idatziaren ale bana.
- Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa eman beharko da honako alderdi hauei buruz:
 - Emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak.

medidas considere oportunas para el buen desarrollo del programa y la mejora de su gestión.

9ª - Plazo y forma de justificación del gasto

La entidad beneficiaria deberá justificar la subvención concedida antes del 31 de enero de 2024.

Según establece el artículo 30 de la Ley 38/2003, se deberá justificar el 100% del presupuesto de la actividad subvencionada y no sólo la cantidad concedida por el Ayuntamiento, especificando los gastos cuyo coste se imputa a la subvención concedida por éste.

Al presentar la documentación han de tenerse en cuenta los criterios de normalización que se detallan a continuación.

La justificación es un acto obligatorio para la entidad beneficiaria y se efectuará mediante la modalidad de cuenta justificativa ordinaria, que contendrá, como mínimo, la siguiente documentación:

- a. Memoria explicativa del proyecto: actividades realizadas y resultados obtenidos. La memoria se acompañará de:
- Ejemplar de los estudios, programas, publicaciones, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica y escrita haya sido elaborada en la actividad objeto de la subvención.
 - Con el fin de conocer su impacto en la situación de las mujeres y hombres, y siempre que la actividad subvencionada lo permita, se deberá aportar información desglosada por sexo y/o género de:
 - Las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado.



- Entitateko titularrak eta plantilla.
 - Kontratatu den entitateko plantilla, halakorik bada.
 - aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.
- Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa.

b. Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izango ditu:

1. atala: Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako en justifikazioa

Proiektua hainbat entitate publikok edo pribatuk finantzatzeko badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzeko bada bete beharko da.

2. atala: Udalari egotzitako gastuen egiaztagirien zerrenda

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuz.

Era berean, fakturak eta merkataritzako trafikoko juridikoan frogatutako baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

Eskudirutan ordaintzekotan, aintzat hartu beharko da lege ezarritako mugapena.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Edonola ere,

- De las personas titulares de la entidad y de su plantilla.
 - De la plantilla de la entidad que se haya contratado, en su caso.
 - Otros indicadores que permitan evaluar la eficacia de las medidas de igualdad aplicadas.
- Ficha de seguimiento de utilización del euskera.

b. Memoria económica justificativa del coste de las actividades, según modelo de cuenta justificativa ordinaria. Ésta comprende los siguientes apartados:

Apartado 1: Justificación de fondos propios o recibidos de otras entidades

Se cumplimentará en caso de que el proyecto se financie por varios entes públicos o privados, y/o con recursos propios de la entidad beneficiaria.

Apartado 2: Relación de justificantes de gastos imputados al Ayuntamiento

Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos del proyecto que se imputan a la subvención municipal, relacionando los tipos de gastos con identificación del acreedor, concepto, fecha e importe.

Así mismo, se aportarán las facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico-mercantil o con eficacia administrativa, así como los documentos que acreditan el pago de las mismas.

Para realizar los pagos en metálico habrá de tenerse en cuenta la limitación legal establecida.

Únicamente se admitirán recibidos cuando las actividades realizadas no se puedan



jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Jasotze-agiriak datu hauek hartu beharko ditu barne:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZaren atxikipena (dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

4. atala: langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Dirulaguntza jaso duen proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatuko dira, pertsona edo entitate onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) erantsita, PFEZren 110 ereduak eta, hala badagokio, 190 ereduak, bai eta horiei dagozkien ordainagiriak ere.

5. atala: Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

Eranskin hori beteko da bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatzeko. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsi egingo dira —erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak...—, zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

Erantzukizunpeko adierazpena, ondokoa jasotzen duena:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako

acreditar por otro medio. En todo caso, la persona que firme el recibí no ha de tener la condición de empresario o profesional dado que, si así fuera, estaría obligada a expedir y entregar la correspondiente factura.

El recibí deberá contener estos datos:

- Nombre, apellidos, NIF y domicilio de la persona expedidora y destinataria
- Descripción detallada de la operación o servicio realizado y su precio total
- Retención del IRPF (se deberá acompañar ingreso de dicha retención en la Agencia Tributaria correspondiente)
- Lugar, fecha y firma de la persona o entidad receptora.

Apartado 3: Balance de ingresos y gastos del proyecto/actividad.

Apartado 4: Gastos de personal y seguridad social.

Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos de personal y seguridad social del proyecto subvencionado, adjuntando las nóminas y TCs (actuales RNT y RLC) a cargo de la entidad o persona beneficiaria.

Apartado 5: Liquidación individualizada de gastos, dietas y viajes.

Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos de viaje y dietas, desplazamientos, manutención etc. Al mismo hay que adjuntar los documentos comerciales justificativos del gasto (billetes del medio de transporte utilizado, tickets, facturas...) que son la base para determinar la cuantía.

Declaración responsable, que contiene:

- Declaración de que las facturas y recibos



helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

- Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena (beharrezkoa bada).
- Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, oro har onartzen diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz, eta kontuan izanik horiei egotzitakoa ezin izango dela inolaz ere dirulaguntzaren % 10a baino gehiago izan.
- Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, halakorik badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

c. Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arren dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak obra-kontratuaren kasuan 39.999 euroko (BEZik gabe) eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuaren kasuan 14.999 eurokoa (BEZik gabe), pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzaile eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egina badago.

se generaron como consecuencia de la ejecución del objetivo o fin previsto y han sido financiadas por la aportación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- Declaración de no contar con personal asalariado a cargo para el desarrollo del proyecto (si procede).
- Declaración de costes indirectos que la persona o entidad beneficiaria imputa a la actividad subvencionada en la parte que corresponda de acuerdo con los principios y normas de contabilidad generalmente admitidos, sin que la imputación efectiva pueda ser superior al 10 %.
- Declaración responsable de la persona o entidad beneficiaria en la que detalle otras subvenciones o ingresos que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación de importe y procedencia o, en su caso, declaración indicando que no ha solicitado ni es perceptora de otras subvenciones para el proyecto.

c. Gastos subvencionables que superen la cuantía de un contrato menor.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere en el contrato de obras la cuantía de 39.999 euros (IVA excluido) y en suministros y servicios la cuantía de 14.999 euros (IVA excluido), la persona o entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con



d. Emandako dirulaguntza ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

10.- Diruz lagunduko ez diren gastuak

Ez dira diruz lagunduko ondoko gastuak:

- Ondasun inbentariagarriak eraiki, birgaitu edo hobetzearen ondorio diren gastuei dagozkien, DLOaren 31.4 eta 31.5 artikuluan bildutako arauak jarraiki jokatu da.
- Gasteizko udalerritik kanpo garatzen diren jardueren gastuak, Euskal Herriaren barruan antolatutako eta behar bezala justifikatutako kultur txangoak eta ingurumen irteerak izan ezik.
- Elkarteko kideek edo elkarteko kideek parte hartzen duten enpresa, elkarte edo entitateek emandako zerbitzuengatik eratorritako gastuak, alde aurretik baimena eskuratu ez bada.
- Material ibilgetuetan egindako inbertsioei dagozkien gastuak —esate baterako, altzariak, makineria, instalazioak, tresneria informatiko edo ikus-entzunezkoa, komunikazio tresneria, ibilgailuak, etab.
- Zeharkako zergak, BEZ kasu, ez dira diruz lagunduko, gerora berreskuratze edo konpentsatzeko aukera dagoenean.
- Diruz lagundutako jarduerak burutzeko

anterioridad a la subvención.

